

EUSKARA ERRIOXAN BERPIZTEN

Gaur egun garrantzi aundiko berriarekin gatoz: Errioxan euskara berpizten ari zaigu. Indar aundiko ekintza daukagu or eta ez nolanaiko gizonak, benetan bere-
xiak. Berri au, berri bezala, gaurkoa da, baiñan berri onen gaia, gaia bezala, ez da
neretxat gaurkoa aspaldikoa baizik.

Amets Izkutua

Orain dela ogeitabost urte, Iparameriketara joan aurretik, Egitazko Errioxara
askotan joaten nintzan eta sugurraekin nabaritzen nuen zeñien lotuak dauden
lurralde aiek gaurko Euskalerriarekin. Zenbait toki ikusita ortxen uste dezu Bazta-
n'en zabalik zaudela. Adibidez oso lotua agertzen da Kameros Baztangoko lurral-
dearekin.

Edozein aitzaki Errioxara joateko ona zen aruntzko bidea artzeko. Euskararen
aztarnak ikusten nitula arrituta gelditzen nintzen, emen izkuntzan entzuten ziren
euskal itzak, berriz tokietako euskal izenak, garbi ta argi gaur arte gorde dituzte-
nak. Merino Urrutiaren lanak esaten digute ori bere liburuetan, ta ezin aztu dan-
tza zarrak daukaten euskal usaia ta garai berdiñean oraindik bizirik arkitzen ditu-
gun urratsak.

Egitan lurralde oiek dire Euskalerraren zati berexiak; nunai ta ugari agertzen
ziren eta beti gure ikusle taldean sortzen zen eztabaida bat. Gero ta ugariago ikus-
ten nitula euskal urratsak Errioxa'n sortzen zitzaidan galdera bat: noiz esnatuko
dugu erri onen euskal izaera? Orrela sortu zen nik egindako liburuxka "errioxa'ko
San Millan euskal iturri", larogeitamaika orriko liburuxka, lendabiziko aldiz euska-
raz egiña, bertako semeak esnatzeko eta "baskones" aien urratsetan jartzeko.

Liburuxka onetan nai nuen agertu euskaldun zarrak adierazten zien gaurko
deia errioxatarrei. Salgai jarri nai nuen bereziki San Millango santutegian. Asi ziren
saltzen eta andik gutxira agindu nagusia etorri goitik bera, ez saltzeko. Ez zuten
ikusitai ere emengo lurraldetan liburuxka ori. Orduan ni Estatu Batuetan nen-
goen Ameriketara. Lenengo aukera nuela onera etortzeko joan nintzan liburuak
jasotzeko. Orrela nere liburua, esan zidaten asko esnatuko zitula Errioxan, leku-
ko mutua biurtu zen.

Dena dela nere barrenean jarraitzen zuen zutik nere ametsak, eskatuz orko
gizarte orren esnatzea. Nere ametsa beti aurrera. Nere barrenean pensatzen
nuen ziurtasun osoarekin noizbait eta ustekabea, sortuko zala euskal nortasuna
Errioxan.

Andola'ko Joxe San Adrian'en

Josetxo Teres dugu Andosilla'ko gaztea, euskaraz ondo egiten duna ta irakas-
le bezala zebillena Erribera'n erri batetik bestera.

San Adrian'go "gaba-eskolaren" zuzendaria zen. 1997'garren urtean ilbeltzan,
ain zuzen, joan nintzan Josetxo Teres agurtzera San Adrian'era ta elkarizketa
amaituta galdetzen nion "Kalagurritik ain bertan zeratela ez al da oraindik errioxa-
tarrik agertu euskeraren ikasketak egiteko baimenaren eske?"

Auxe da erantzun zidana: "Taldetxo bat da nai dutenak etorri, baiñan ez nituen
artu".

Auxe da nere erantzuna: "Ostiko bat emango nitek gogotik. Oso gaizki egin dek. Ezin genituen ikasle oiek bazterrean utzi, naparrak ez direlako". Bi aldiz geiago bildu giñen Kalagorria'n emengo euskalzaleekin "Gazte oien izenak, zuzenbideak eta urrutikoizkiñak bear ditut eta banao ezagutzera danen buru dena", nion nik. Esan eta egin. Gaur egunero, Kalagorri'tik Lodosara, gaueskolara dijoaz biz-pairu ikasle.

Laguntza eske

Gazte oien alde laguntza eske asi nintzan. Naparroa'ko jaurlaritzaren atean jo nuen, bainan garbi asko erran zidaten "ez da gure eginkizuna". Ostiko ederra artu nuen.

Gazteiz'ko jaurlaritzan ere asi nintzan ate joka. Itz politik eman zizkidaten. "Emate ori" luzatzen zijoan...

Laguntza ori, batez ere, irakasle batentzat zan.

Nerau ikaskaiak ematen astea ere bururatu zitzaidan.

Bainan beste bide bat gelditzen zitzaigun ikusteko eta galdera auxe zan bidezkoa: "Euskara ikasteko zergatik ez dire joaten San Adriango gau eskolara? Irten biderik egokiena auxe zeritzaigun".

Arzubialde'en berria

Eugenio Arzubialde nere adiskide miñak berri ederra ematen dit. "Deia" aldizkarian (Deia 1999-VI-29) agertzen da eskutitza orrialdeetan eta erraten dute Logroño'n sortu dala euskalzaleen elkarte bat eta lamiñeen iturri izena eman diotela: Berria ezin zitekeen ohea. Egun artan bertan lortu nuen urrutizkiña. Deitu nien elkarte orren arduradunei ta urrengo egunean Logroño'ko bidea artu nuen....

Logroño'ko bidea

Logroño'ko ikastetxe nagusian arkitu nituen bi Errioxatar gazteak euskal elkarte sortu zutenak, Biak guztiz argiak, Martin Martinez Saez de Jubera bat, eta bestea José Maria González. Euskaraz naiko ongi egiten dute. Oion eta Biana'ko ikasleak gaba eskolara joaten direnak erdiak Errioxatarrak dire, erraten zidaten.

Talde onek antolatatu zuen 1996'garren urtean Abenduan aste bat itzaldi ederez osatua, euskal kultura Errioxa'n ezagutzeko egiña. Itzaldi bakoitzean eunen bat entzule izan zituzten. Arrakasta borobilla. Aste onen iragarki galantak nunai ikusten ziren Logroño'n. Enrike Knör, Gazteizko irakasleak ementxen bertan eman zuen itxaldi bat.

Berri guzti auek emanez idazlan bat agertu nuen "Diario de Navarra" egunkarian. Irakurleak zoraturik gelditu ziren ori dena entzuterakoan.

Idazlan arrigarria

Ikerketako lana guztiz ederra egin zuten: nolakoak ziren euskaldun zar aien izenak emen kristautasuna sartu aurretik... Idazlan ori Naparroa'ko aldizkari batean argitaratzea bidezkoa zela iduritu zitzaidan. Ala esan eta ala egin. Joxe Maria Satrustegiri erakutsi zioten lan ori. Oso interesgarria iduritu zitzaion. Ala agertu zen "Fontes Linguae Vasconum" aldizkarian. Askok irakurri zuten, baita aipatu ere oso ona bezala. Separata ederra egin zien, bitxi bat.

Donosti'ko errioxatarren elkarteakin arremenak

Errioxatarrak elkarte bat daukate Donostin. Luis Fernandez zuzendariak artu ninduan. Errioxa'ko euskalzaleen berriak emen eman nizkion... Oso ondo artu zituan eta agindu zien urtean zear ematen zituzten itzaldietan, oietako bat Errioxa'ko euskalzalei eskeintzea.

Itzaldiak eman zituzten jorralan 18'tik 23'ra. Gure Errioxatarrak izan zuten bere eguna Jorralaren 22'an, Berrogeiren bat lagun etorri zitzaien entzutera.

Afari bat oso bestelakoa

1999'garren urtean otsailaren 26'an afari bat antolatu nuen Errioxa'ko euskalzaleentzat nere etxean Lizarra'n.. Lenengo aldiz kalagurritarrak Logroñotarrekin alkartzen zirala ta arpegia nolakoa zuten ikusten zutela. Gañera, ibero ibaiaren inguruan bizi diren euskalzaleak deitu nituen ere: bai Oion, Biana, Mendabia, Lodosa, Lizarra, Andola et Iruña'tik. Zortzi itxaro nituen eta amasei etorri ziren.

Paulo Atutxak bakalloa pilpillen egin zigun. Ogei milla pezetaren bakallua jan zen gaba artan. Araba'tik ere deitu nuen Antonio González. Araba'ko toponimia jaso du gizon jakintsu onek. Ondo entzuten zuten ango gazteak eta Errioxa'tarrak jakindakoekin zoraturik gelditu ziren.

Ojocastro'ko ibilli aldia

Errioxa'ko tokien izenak nolakoak ziren euskaraz ikusi nai genituen. "Laminen iturri" delako izen ori ezagutu nai genuen. Jose Antonio Gonzalez Salazar eta Atutxa, Martin Martinez etani joan giñan, Ojakastro'ra iritsita aiton bat guztiz argia arkitu genuen. Benetan aberatsa. Aitona bersolaria zen. Garbi dago euskaraz an garai batean anitz egiten zala. Andik Ezkarai'ra joan giñan.

Errioxa'n euskararen urratsetan

Elkarrekin Errioxa'ko lurren nortasuna ikusi nai genuen eta alkarturik Jose Antonio Gonzalez Salazar, Paulo Atutxa, Martin Martinez de Jubera ta J.M. Gonzalez eta ni berebil batean giñan. Anguiano'ko dantzariak ikusi genituen, gero Viniestra "de arriba y abajo", Ormazas delako mendi katea San Andres de Kameron eta erriko museoa. Azkenik San Esteban de Biguera.

Aipatutako gai nagusietan auxe agiri: euskal barnetegi baten beara Logroño'n eta diru ateratzeko "Errioxa oñez" delako egun bat nai ta naiez an antolatu bear... Txistuaren ondotik Naparroatik araño joango giñake, egun berexi orretan.

Alaxekua izango litzake gure zoria.

Latxaga